



2019/2020
Ikasturteari hasiera
emateko ekitaldia
Acto de apertura
del curso académico
2019/2020

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



2019/2020
Ikasturteari hasiera
emateko ekitaldia

Acto de apertura
del curso académico
2019/2020

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Aurkibidea | Índice


1. 2018/2019 ikasturtearen oroitidazkiaren laburpena,
Pedro Iriondo Euskal Herriko Unibertsitateko
idazkari nagusi jaunaren eskutik


Resumen de la memoria del curso académico 2018/2019,
a cargo de Pedro Iriondo, secretario general de la
Universidad del País Vasco 07
2. Ikasturte hasierako hitzaldia, Xabier Etxaniz doktore
jaunaren eskutik,
«Herri ipuinak gaurko gizartean»

Lección inaugural a cargo del doctor
Xabier Etxaniz
«Herri ipuinak gaurko gizartean» 17
3. Nekane Balluerka, Euskal Herriko Unibertsitateko
errektore andrearen hitzaldia

Discurso de Nekane Balluerka, rectora de la Universidad
del País Vasco..... 27
4. Iñigo Urkullu, lehendakari jaunaren hitzaldia

Discurso del lehendakari, Iñigo Urkullu 41







2018/2019
ikasturtearen oroitidazkairen
laburpena

Resumen de la memoria
del curso académico 2018/2019

Pedro Iriondo Bengoa,
Euskal Herriko Unibertsitateko
idazkari nagusi jaunaren hitzaldia

Discurso de Pedro Iriondo Bengoa,
secretario general de la Universidad del País Vasco







Lehendakari jauna, errektore andrea, Eusko Legebiltzarreko presidente andrea, Arabako diputatu nagusi jauna, Vitoria-Gasteizko alkate jauna, lehendakari ohi jaunak, Hezkuntza sailburu andrea, Euskal Herriko beste unibertsitateetako errektore eta ordezkari jaunak, errektore ohi jaunak, herri agintariok, klaustroki-deok, jaun-andreok

Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusia naizen aldetik, besteak beste, amaitu berri dugun ikasturtearen gertaera nagusiak jasotzea dagokit. Bai eta zuei guztioi horiek azaltzea ondorengo oroitidazkiaren laburpen honetan.

La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea inaugura hoy su cuadragésimo curso académico, lo que supone el cierre del curso 2018-2019, en el que se han ofertado un total de 71 grados diferentes de los cuales 3 han sido dobles grados, 107 másteres, 3 de ellos Erasmus Mundus y un total de 66 programas de doctorado. Han pasado por nuestras aulas 43.344 estudiantes en enseñanzas oficiales, 35.982 de grado, 3.505 de máster y 3.857 de doctorado. A ellos hay que añadir otros 16.000 estudiantes de títulos propios, cursos complementarios, aulas de la experiencia y cursos de verano (12.500). El balance final suma un resultado de más de 59.500 estudiantes.

Un proyecto formativo de esta envergadura se lleva adelante con 4.146 puestos de Personal Docente e Investigador, siendo un 77,7% profesorado doctor, y con 1.202 personas contratadas como personal investigador o en formación. El Personal de Administración y Servicios cuenta, por su parte, con 1.569 puestos.

La arquitectura institucional que da forma en la actualidad a la UPV/EHU consiste en tres campus, en los que operan 20 centros, 111 departamentos, 17 institutos de investigación y 9 cátedras de extensión universitaria.

Uno de los logros más destacados de este curso 2018-2019, que contribuirá de forma decisiva a la consolidación de la UPV/EHU, ha sido el proyecto para la construcción del nuevo edificio de la Facultad de Medicina y Enfermería junto al hospital universitario de Basurto en Bilbao, gracias al acuerdo firmado con el Gobierno Vasco. Esta nueva infraestructura estará operativa en el curso 2024-2025. La futura Facultad tendrá una superficie construida de 32.000 metros cuadrados y se contempla una inversión superior a 52 millones de euros. El edificio albergará los Grados de Medicina, Fisioterapia y Enfermería, así como la docencia de 7 Másteres oficiales en el área de Ciencias de la Salud. Durante el próximo mes de octubre se adjudicará la realización del proyecto a una de las firmas licitadoras y se espera que las obras comiencen en otoño del 2020.

Junto con la formación, la investigación constituye otro de los pilares básicos de la universidad pública vasca. En el ámbito de la investigación con financiación estatal, autonómica y foral, en el curso 2018/2019 se ha obtenido un total de 258 proyectos de investigación. El Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades ha concedido 76 nuevos proyectos en las convocatorias de Generación de Conocimiento y Retos de la Sociedad. El Gobierno Vasco, por su parte, ha apoyado 62

nuevos proyectos Elkartek y las Diputaciones Forales han concedido una veintena de proyectos que, sumados a los cerca de 100 proyectos provenientes de convenios específicos, convocatorias de fundaciones y otras convocatorias públicas, han supuesto una financiación externa de alrededor de 18 millones de euros. Además, el Gobierno Vasco ha asignado 15 millones de euros adicionales a 79 grupos de investigación de excelencia para los próximos 3 años.

En el ámbito de la investigación internacional, la UPV/EHU ha obtenido en los últimos cinco años algo más de 30 millones de euros, dentro del programa marco de investigación de la Unión Europea Horizonte 2020, cifra similar a la que consiguió en el programa anterior durante sus siete años de duración. Asimismo, se ha alcanzado ya el mismo número de proyectos (102) que en el programa anterior y se ha duplicado el número de los liderados por nuestra universidad, 13 proyectos al cierre de esta memoria.

En el curso 2018/2019 cabe destacar 2 nuevas ayudas concedidas por el European Research Council (ERC): una Starting Grant y otra en la modalidad Proof of Concept. Asimismo, la UPV/EHU consolida el éxito logrado en las acciones del programa Marie Skłodowska-Curie, con 15 nuevos proyectos aprobados: 11 en la

categoría de Individual Fellowship, 3 Research and Innovation Staff Exchange y 1 Innovative Training Networks por un valor acumulado superior a los 3 millones de euros.

La intensa actividad desarrollada a través de estos proyectos ha dado lugar en 2018 a la publicación de 3.300 artículos en revistas internacionales de prestigio, de las cuales el 62,5% se encuentra en el primer cuartil por índice de impacto.

El esfuerzo docente e investigador desarrollado por el personal de la UPV/EHU ha permitido que nuestra institución se encuentre situada en puestos destacados en los rankings universitarios internacionales más reconocidos. En la última edición del ranking de Shanghái, la UPV/EHU ocupó un lugar entre las 500 mejores universidades del mundo, de un total de 20.000. En la clasificación específica por ramas de conocimiento la Ingeniería Química se encuentra entre las cien primeras y Nanociencia, Nanotecnología e Ingeniería Metalúrgica entre las 150. La UPV/EHU se encuentra asimismo entre las 200 mejores universidades del mundo de menos de 50 años, de acuerdo con el ranking Times Higher Education.

La incorporación básica de los y las jóvenes al mundo de la investigación se ha visto una



vez más impulsada a través de la defensa de un total de 385 tesis doctorales, de las que el 50%(193) han logrado la mención internacional. Entre las tesis defendidas, 62 lo han sido en euskera, y de ellas el 60% (37) han sido, a su vez, internacionales. Se ha continuado la línea de desarrollo de tesis bajo convenio de cotutela con otra universidad con un resultado total de 10 tesis, 7 de las cuales han sido internacionales.

La universidad ha seguido reforzando sus lazos de colaboración con el tejido socio-económico. Se han formalizado 1.284 contratos con 643 empresas y entidades por un importe de 9,4 millones de euros, contratos en los que han participado 200 grupos de investigación. Hemos solicitado 17 patentes prioritarias, que van renovando nuestra cartera tecnológica. Esta incluye un total de 200 tecnologías protegidas y hemos licenciado 12 de estas patentes a empresas. En los tres programas de emprendimiento en marcha han participado 3.800 personas en acciones de promoción, y se han creado 10 nuevas spin offs, después de la evaluación de 80 oportunidades de negocio.

Una de las iniciativas de colaboración en investigación y transferencia que han cristalizado este curso pasado ha sido la creación de los laboratorios Pharmedlabs de desarrollo farmacéutico en el Campus de Álava y el Parque Tecnológico de Álava, gracias al esfuerzo conjunto de la Universidad y de Tecnalia, así como al apoyo decisivo de la Diputación Foral de Álava. También se ha puesto en marcha el Centro de Investigación en Actividad Física y Salud (CIAF) mediante un acuerdo específico con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz que facilita el uso de instalaciones municipales a los equipos de investigación de este ámbito.

El Servicio Editorial ha publicado 308 obras monográficas, el 44% de ellas en euskera, así como los números correspondientes de 34 revistas. Tres revistas del fondo editorial están en la Web of Science y a las cuatro revistas que

ya poseían el sello de calidad de la Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología se les ha unido una quinta. Así mismo, cuatro colecciones de monografías tienen el Sello de Calidad en Edición Académica.

La Zientzia Astea, el evento de divulgación científica más importante que organiza la Universidad, congregó en su decimoctava edición a 20.000 personas, a las que hay que sumar las 6.000 que en los días anteriores visitaron en el Bizkaia Aretoa la exposición "UPV/EHU en el mar", vinculada al tema monográfico (el agua) de esta edición de la Zientzia Astea.

La internacionalización, continúa siendo uno de los ámbitos de crecimiento de la UPV/EHU. En el curso 2018/2019, 2.307 estudiantes del extranjero se matricularon en alguno de nuestros programas de grado y posgrado. También recibimos 1.242 estudiantes en el marco de programas de movilidad, y enviamos 1.674 estudiantes de nuestra universidad a diferentes universidades extranjeras. Por otro lado, 80 docentes y 24 personas de administración y de servicios han realizado estancias de docencia o formación en el marco del programa Erasmus.

En el área de plurilingüismo hemos incrementado la oferta de asignaturas en terceras lenguas. El pasado curso se han ofertado un total de 817 asignaturas de grado en idiomas no oficiales y 360 de máster. Además, 1.178 miembros del personal docente e investigador tienen acreditada su capacidad para impartir docencia en idiomas no oficiales, algunos en más de una lengua.

La calidad en la gestión ha experimentado un notable avance en lo que respecta al proceso de acreditación institucional, aspecto en el que nuestra universidad es líder a nivel estatal. Se han recibido las resoluciones ministeriales sobre la certificación de la acreditación institucional de 7 centros (Facultad de Ciencia



y Tecnología, Facultad de Farmacia, Escuela de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz, Facultad de Educación de Bilbao, Facultad de Psicología, Facultad de Químicas y Escuela Universitaria de Enfermería de Vitoria-Gasteiz). Se espera para estas próximas semanas la acreditación de la Escuela Técnica Superior de Arquitectura, con lo que la UPV/EHU cerraría el 2019 con un 36,8% de sus centros con esta certificación.

A lo largo del curso 2018/2019 se han recibido de Unibasq las certificaciones del Diseño de los Sistemas de Garantía de Calidad de los 7 nuevos centros reorganizados de la universidad. En consecuencia, dispondremos hasta finales de 2021 para solicitar la certificación de la implantación de sus Sistemas de Gestión de la Calidad y posteriormente optar a la acreditación institucional. La previsión es obtener para 2022 la certificación de la Acreditación Institucional para la totalidad de los centros de la UPV/EHU.

Irakasleen kalitatea ere beste erronka berezkoa dugu. Unibertsitateak lanean hasi diren irakasle berrien prestakuntzari arreta berezia jartzen jarraitu du. Agintaldi honetan martxan jarri diren IRAKER eta GAITUZ programekin lanean dihardugu garapen akademikoari aukera gehiago emanaz. Horrez gain irakasBE-

RRI programa abian jarri da, Irakasle berriei harrera egin eta lehen orientabideak emateko; hiru campusetan burutu da eta 73 irakaslek parte hartu dute.

Ildo berean, Docentiaz programaren berderatzigarren deialdia egin da. 317 irakaslek parte hartu dute (% 56 emakumeak, % 44 gizonak), eta, beraz, irakasle-ikertzaileen % 47a ebaluatua izatea lortu dugu. Unibasq agentzia arduratu da Docentiaz programa ziurtatzeaz. Hori horrela, ikasturte honetatik aurrera, egonkortze eta instituzionalizazio fase batean sartuko da, non kalitatezko irakaskuntzaren ikusgarritasunean eta balorazioan sakonduko dugun. Hori dela eta, aitorten publikoa egin zaie deialdi honetan Docentiaz programaren hiru dimentsioetan bikaintasuna erdietsi duten 49 ikasleri, baita 62 ebaluatzaile, 42 sail eta 9 ikastegiri ere, beren irakasle-ikertzaileen % 50 baino gehiago programan ebaluatua dituztenak jada.

Ikasleak goi-mailako hezkuntzara hurbiltzeko eta unibertsitateak euren formazioan eskaini ahal dituen aukerez jabetzeko, orientazio lana trinkotu dugu amaitu berri den ikasturtean. Bigarren hezkuntzako ikasleen eta haien familien artean ezagutarazteko, unibertsitatera sartzeko programaren barruan hainbat jardura burutu dira (aurten ere Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan). Guztira, 18.800 pertsona inguruk parte hartu dute: unibertsitate orientazio azoketan, 10.900 inguru; ikastegietako Ateak Zabaltzeko Egunean, 2. Batxillerreko 4.900 ikasle inguru eta 1. Batxillerreko ikasleentzat antolatutako Jardura Praktikoetan, berriz, 3.000 inguru. Aipamen berezia merezi dute Ipar Euskal Herriko ikasle euskaldunei zuzendutako Ate Irekiek zeinetan 110 ikaslek parte hartu zuten. Horrez gain, bigarren hezkuntzako orientatzaileei zuzendutako orientaTU jardunaldiak anto-



latu ditugu, graduen berezitasunak ongi ezagutarazteko asmoz; bertan, bigarren hezkuntzako 150 institututatik etorritako 154 orientatzailek parte hartu dute.

UPV/EHU, unibertsitate publikoa den neurrian, konprometitu dago inklusioarekin, aniztasunaren errespetuarekin eta berdintasunarekin. Hala, gizarte konpromisoaren alorrean, III. Inklusio Plana eta Gizonen eta emakumeen arteko III. Berdintasun Plana onartu ditu Gobernu Kontseiluak.

Inklusioari dagokionez, ezgaitasunak dituzten ikasleen errola 390 pertsonakoa izan da. Era berean, unibertsitatera sartzeko probak egiteko 364 egokitzapen eskaerari erantzun zaie. Ezgaitasunen bat duten Bigarren Hezkuntzako ikasleei eta haien familiei zuzendutako Ikasleen Ahotsak jarduera antolatu da lehenengo aldiz, unibertsitateko ikasketak egin ditzaketela helarazteko. Bertan, Bigarren Hezkuntzako 15 ikaslek aukera izan dute

unibertsitateko 16 ikaslerekin haien esperientziak partekatzeko.

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiekin batera Arrakasta programak lehenengo fruituak erdietsi ditu. Izan ere, haur eta nerabeen babeserako eta gizarte inklusiorako sistemen barruan dauden gazteek aukera izan dezaten unibertsitatean sartzeko eta goi mailako ikasketak arrakastaz burutzeko programa honetan 14 ikaslek parte hartu dute eta haietako 3-k ikasketak amaitu eta euren unibertsitate titulua eskuratu dute.

Zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen inklusiorako ahaleginari, errefuxiatuekin eginikoa gehitu zaio. Hala, administrazio tramiteetan lagundu diegu nazioarteko babes egoeran dauden 16 pertsonari, Errusia, Siria, Sahara, Venezuela eta Afganistanetik etortakoak, unibertsitate ikasketak hasi edo jarrai ditzaten (% 44 emakumeak, % 56 gizonak).



Era berean, gizonen eta emakumeen artean berdintasuna bultzatzeko ekimenak gauzatzen jarraitu dugu, bai emakumeen lidergo akademikoan baita ikasle, irakasle eta langileen formazioan, besteak beste, Emakunderekiko elkarlanean. Genero indarkerien aurkako Protokoloaren bidez, 24 pertsona artatu dira ikasturte honetan eta, guztira, 46 2017az geroztik.

Enplegarritasuna sustatzeko eta nagusiki ikasleak esperientzia zuzen eta errealeen bitartez lanaren munduan murgiltzen joan daitezzen, praktikaldien kopuruak nabarmen egin du gora gure unibertsitatean. Bukatu berri dugun ikasturtean 11.588 praktika burutu dute UPV/EHUko ikasleek, gure herrialdeetako 4.622 enpresa eta erakundeetan. Lehen harreman honek segida du hiru campusetan antolatu diren Enplegu Foroetan, zeinean enpresak eta erakundeak batetik eta ikasleak bestetik harremanetan jartzeko aukera ugari sortzen den. Azken ikasturtean 115 enpresa eta erakunde inguru bertaratu dira, eta 650 lanpostu inguru eskaini dituzte. Gure ikasleen eta ikasle ohien 800 curriculum vitae inguru aurkeztu zaizkie enplegatzaileei.

Halaber, jarduera horiei guztiei behar adinako dimentsioa emateko eta ikasleen irteera soslaiak hobetzeko asmoz, UPV/EHUko Zeharkako Gaitasunen Katalogoa definitu eta argitaratu da.

Zeharkako gaitasunek eta formakuntza inpaktu handiko jarduerak beren lekua izan zuten ere UPV/EHUko ikasleen I. biltzarrean, "Gure Gradu Amaierako Lanek mundua aldatzeko balio dute" izenburupean egin zena. Biltzarrean, Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen inguruan eginiko ikerlanak aurkeztu ziren. Zehazki, 56 lan, jakintza arlo guztietakoak.

Euskararen arloan, UPV/EHUren Euskararen III. Plan Gidaria onartu dugu. Gradu ikasketetan, derrigorrezko eskaintzaren % 98 euskaraz izatera iritsi da, azkenaldian 8 derrigorrezko irakaskai gehiago euskaldundu ondoren. Graduondoko ikasketei dagokionez, euskarazko berezko titulu berri bi onartu dira 2019/2020 ikasturterako. Horrez gain, irakaskuntzaren bikaintasunaren harira Aitzinatu programa abiatu da.

Ikerketaren alorrean euskararen balioa eta oihartzuna handitzeko aurrerapauso nabarmenak eman ditugu eta doktore euskaldunen datu-basean jada 648 ikerlarik eman dute izena. Euskara kalitatearen kudeaketarako sistemetan integratzeko strategiaren barruan, dagoeneko bost dira Bikain ziurtagiria lortu duten ikastegiak; aurten Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak erdietsi dute. Eta erabilera soziala bultzatzeko ahaleginean, 2.600 ikasle eta langilek eman dute izena unibertsitatean antolatu dugun Euskaraldian.

Amaitzeko, ezinbestean laburra izan behar duen txosten honen bitartez, espero dut unibertsitateak 2018/2019 ikasturtean izandako jardunaren alderdi nagusiak transmititu izana, baita Euskal Herriko Unibertsitateko kide garen guztiok Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien, udalen, Eusko Legebiltzarraren eta gizarte nahiz ekonomia erakundeen laguntzaz egiten eta garatzen ditugun proiektu eta ekimen kopuru handia ikusarazi izana ere. Aipatutako erakunde horiek emandako babesa aitortu eta zinez eskertu nahi dugu.

Besterik ez, eskerrik asko zuen arretagatik.







Ikasturte hasierako hitzaldia,
Xabier Etxaniz doktore jaunaren eskutik,
« *Herri ipuinak gaurko gizartean* »

Lección inaugural a cargo del doctor
Xabier Etxaniz
« *Herri ipuinak gaurko gizartean* »







Lehendakari jauna, Eusko Legebiltzarreko presidente andrea, Arabako diputatu nagusi jauna, Vitoria-Gasteizko alkate jauna, lehendakari ohi jaunak, Hezkuntza sailburu andrea, Euskal Herriko beste unibertsitateetako errektore eta ordezkari jaunak, errektore ohi jaunak, herri agintariok, klaustrokideok, jaun-andreok.

Decía el conocido escritor y pedagogo Gianni Rodari que la mención de cinco palabras —niña, abuela, bosque, flores y lobo— inmediatamente hace que evoquemos un conocido cuento popular. Estoy seguro que todos sabemos de qué cuento estamos hablando, y que todos conocemos, o eso creemos, la narración oral que Perrault fijó por escrito por primera vez a finales del siglo XVII.

El cuento de Caperucita Roja proviene de la tradición oral y cuenta con más de 30 versiones tradicionales siendo la recogida por Darnton una de las primeras, en la que todavía no aparece la indumentaria de color rojo de la niña. Dicho cuento dice así:

Había una vez una niñita a la que su madre le dijo que llevara pan y leche a su abuela. Mientras la niña caminaba por el bosque, un lobo se le acercó y le preguntó adonde se dirigía.

– A la casa de mi abuela, le contestó.

– ¿Qué camino vas a tomar, el camino de las agujas o el de los alfileres?

– El camino de las agujas.

El lobo tomó el camino de los alfileres y llegó primero a la casa. Mató a la abuela, puso su sangre en una botella y partió su carne en rebanadas sobre un plato. Después se vistió con el camisón de la abuela y esperó acostado en la cama. La niña tocó a la puerta.

– Entra, hijita.

– ¿Cómo estás, abuelita? Te traje pan y leche.

– Come tú también, hijita. Hay carne y vino en la alacena.

La pequeña niña comió así lo que se le ofrecía; mientras lo hacía, un gatito dijo:

– ¡Cochina! ¡Has comido la carne y has bebido la sangre de tu abuela!

Después el lobo le dijo:

– Desvístete y métete en la cama conmigo.

– ¿Dónde pongo mi delantal?

– Tíralo al fuego; nunca más lo necesitarás.

Cada vez que se quitaba una prenda (el corpiño, la falda, las enaguas y las medias), la niña hacía la misma pregunta; y cada vez el lobo le contestaba:

– Tírala al fuego; nunca más la necesitarás.

Cuando la niña se metió en la cama, preguntó:

– Abuela, ¿por qué estás tan peluda?

– Para calentarme mejor, hijita.

– Abuela, ¿por qué tienes esos hombros tan grandes?

– Para poder cargar mejor la leña, hijita.

– Abuela, ¿por qué tienes esas uñas tan grandes?

– Para rascarme mejor, hijita.



- Abuela, ¿por qué tienes esos dientes tan grandes?
- Para comerte mejor, hijita. Y el lobo se la comió.

La primera versión escrita lo fue, como hemos indicado, en 1697 por Perrault y aquí también se nos muestra cómo le invita el lobo a Caperucita a entrar en la casa:

“Tira de la aldabilla y caerá la tarabilla.

Caperucita Roja tiró de la aldabilla y se abrió la puerta. El lobo, al verla entrar, le dijo, mientras se ocultaba en la cama bajo la manta:

-Deja la torta y el tarrito de mantequilla encima del arca y ven a acostarte conmigo.

Caperucita Roja se desnudó y fue a meterse en la cama, donde se quedó sorprendida al ver cómo era su abuelita en camisón.”

Posteriormente, el lobo, como todos sabemos, se arrojó sobre Caperucita Roja y se la comió.

Perrault dejó muy claro que las jóvenes tenían que tener mucho cuidado con los lobos de dos piernas que andaban por la corte francesa intentando aprovecharse de ellas. Y así lo marcó en la moraleja que acompaña el cuento y que en su versión en euskara, traducida por Genaro Gomez, dice así:

Ikusten da hemen, neska-mutilak edozeini kasu eginda dabiltzala oker batez ere neskatila eder, atsegin eta segailak. Ez zaitezte, beraz, harritu otsoak hainbeste jaten baditu. Otsoa, diot, ez dira-eta otso guztiak ezpal beretik sortuak; aldarte onekoak ere ba omen dira zarata, haserre eta gorroto gabeak neskabilen atzetik dabilta jira eta bira; jator, adeitsu eta goxo etxeraino iritsi, gelaraino ere temoso. Baina, ai ene! Nork ez daki otso elezuriak direla guztiz arriskugarriak.

Ikusten denez Perraulten bertsioa ez da hurrei zuzendutakoa, izan ere uste orokorraren kontra ahozko ipuin tradizionalen hartzaileak ez ziren haurrak. Carmen Bravo Villasante irakasleak adierazi bezala, Perraulten ipuinak larunbatero tertulia baten biltzen ziren lagunak entretenitzeko ziren. Herri ipuinen hartzaileak, berriz, haur nahiz helduak izan ohi dira. Horrela, Joxe Arratibelek, euskal herri ipuinen azken biltzaileetako batek, zioen moduan ipuinok etxeko supazterrean entzuten zituzten denek bilduta:

Negu aldean –iluntze luzeak izaten ziren-, eta etxeke denak biltzen ginenean kontatzen ziren kontu zaharrak. Ikuiliko lanak egin eta sukaldean denok, orduan izaten zen garai egokiena. Aitak ere, artoa aletzen edo, lanen bat bazen, orduan esaten zituen kontuak.

Más aun, Bruno Bettelheim, indica que estos cuentos nunca han sido literatura para niños. Eran narrados por adultos para placer y edificación de jóvenes y viejos; hablaban del destino de las personas, de las pruebas y tribulaciones que había que afrontar, de sus miedos y sus esperanzas, de sus relaciones con el prójimo y con lo sobrenatural, y todo ello bajo una forma que a todos les permitía escuchar el cuento con delectación y al mismo tiempo reflexionar acerca de su profundo significado.

Los significados de los cuentos muchas veces tienen que ver con los miedos y la necesidad de superación, pero también con lo peor de las personas, con sentimientos como la envidia, por ejemplo. Hay un cuento popular vasco, “El envidioso” traducido por Manu Lopez Gaseni, que dice así:

Érase una vez un pobre mendigo que vivía en un apartado rincón del bosque, medio desnudo y muerto de hambre. Habiendo tenido noticias de él una poderosa bruja, acudió al bosque y le dijo:

-He oído que vives en la más absoluta miseria, sin fortuna y sin amigos. ¿Te gustaría librarte de tu penuria?

-Naturalmente que sí –respondió el mendigo. -Seguramente habrás oído que por estos pagos vive Xalbat, otro pobre indigente.

-Lo conozco, sí. ¿Y bien?

-Pues bien, como Xalbat vive en condiciones muchas más precarias que las tuyas, le recompensaré con el doble de lo que te voy a dar a ti. Cuatro mil monedas para ti...

-¿Y para Xalbat ocho mil monedas? ¡Ni hablar! Muchas gracias, pero no quiero tu dinero.

-Te ofrezco entonces cinco ovejas, para que no te falte el alimento.

-¿Y para Xalbat diez? Guárdatelas para otro...

-Pídeme, entonces, lo que desees.

-Que me saques un ojo...

Si es verdad o es mentira, corre hasta el pozo del bosque y mira.

Herri ipuinak ahoz transmititu dira be-laundiz belaundi eta ipuin beraren hainbat bertsio sorrarazi dira uneko hartzailearen arabera. Horrela, gaur egun txistekin gertatzen den bezala, istorio bera kontatzen zen hartzaileen artean harrera egokiagoa izateko. Eta, hain zuzen, ipuinak moldatzeko gaitasun hori izan da gaur egunera arte irauteko arrazoietakoa bat.

Ahora bien, a lo largo de los siglos XIX y XX estos cuentos orales pasaron a ser textos escritos, y por lo tanto definitivos, gracias a la labor de recopiladores como los hermanos Grimm, Afanasiev, Basile, Rodriguez Almodovar o en la literatura vasca Joxe Miel Barandiaran, Azkue, Barbier o Mayi Arizitia.



Estos recopiladores introdujeron cambios en las versiones orales adaptándolas tanto a su visión del mundo como a las características generales de sus lectores. Así, por ejemplo, en la literatura vasca es muy común la visión católica de los personajes y sus acciones; los agresores o los oponentes son diablos o colaboradores suyos, mientras que, por ejemplo, la abuela que ayuda a Marixor (nuestra Cenicienta) no es un hada sino la Virgen María...

Además al fijarse por escrito estos textos orales, se produce toda una serie de cambios. No hay comunicación directa entre el emisor y el receptor del mensaje, es un mismo mensaje para todos los destinatarios y éstos pasan de ser personas carentes de formación cultural a ciudadanos alfabetizados. Gainera, euskararen kasuan bada ipuin horiek irauteko kezka erantsia. Mayi Ariztia honako hitz hauekin hasten da bere ipuin bildumaren justifikazioa egiten:

oharturik nire haurrak zein prestuki egoten ziren, lorietan xoratuak, istorio aditzen, etxeko neskatoek kontatzen zizkietelarik, gogoratu zitzaidan behar nituela istorio zahar horiek izkribuz eman, beldurrez eta ahantz. Eta gero, nire hurrek erran ziezaizkieten beren hurrei, haiek, ttikitan, horren goxoki entzun zituzten istorio berak.

Al popularizarse los cuentos tradicionales pasaron de ser narraciones que se contaban en el ámbito familiar y social a ser historias destinadas al público infantil; algunos cuentos fueron analizados y criticados, sobre todo, por los valores que transmiten. Así, se ha interpretado que los cuentos populares propugnan los valores de una sociedad tradicionalista y clasista. Otro tanto podríamos decir de la visión que se ofrece de la mujer en estos cuentos; personas pasivas que siempre están sometidas a la voluntad de los varones.

Beraz, ipuin hauek oso kritikatuak izan ziren joan den mendeko bigarren erdian. Eta

kritika horien hondar batzuk gaur egunera ere iritsi dira. Are gehiago, esparru akademikotik atera eta kalera ere iritsi da eztabaida. Gogoan izango dugu, esaterako, duela gutxi Katalunian sortu den eztabaida eskola bateko liburutegitik honelako ipuin guztiak kentzea erabaki denean. Edo Penelope Cruz aktoreak eginiko adierazpenekin eta Arturo Perez Reverteren hau bezalako komentarioekin:

Los estúpidos quieren vender una imagen de un mundo color de rosa. Si le dices a un niño que todo son dibujos animados y que los dragones son bondadosos, después descubrirá una realidad mucho más cruel. Así el lobo se encuentra el trabajo hecho, se lo estamos poniendo facilísimo para degollar al rebaño (...)

El mundo se idiotiza y la cultura se idiotiza con el mundo, ¿pero por qué resignarse a ello? Si a un niño se le escamotea que la vida también es lucha, muerte, peligro, incertidumbre y soledad, no sabrá cómo defenderse cuando sea adulto. Hay que mostrar eso de una manera adecuada, que no sea traumática. Los cuentos tradicionales tienen dolor, sufrimiento, miedo, tienen vida real para lo bueno y lo malo, con la luz y la oscuridad.

Herri ipuinen inguruko eztabaida hau, lehen aipatu bezala, ez da berria eta beti egon da presente. Adituen aldetik, berriz, nahiko garbi dago ipuin hauei buruz hitz egitean ezin dela zuri-beltzeko terminotan aritu. Ipuinok ezin dira literalki hartu, ez eta gizarteko eredu gisa. Elementu fantastikoak ageri dira, pertsonak bahitzen dituzten animaliak, hitz egiten dutenak... ez dira, beraz, kontu errealistak eta bai hurraren garapenerako egoerak ikusarazten dituzten istorioak. Folch irakasleak dioen bezala:

Los cuentos explican hechos, situaciones, miedos e ilusiones, personas y relaciones, proyectos, esfuerzos, éxitos y fracasos de muchas generaciones de chicos y chicas de todos los

tiempos, de todas las culturas y de todas las edades.

Beraz, argi dago ipuin hauek duten balioa norberaren heziketan eta talde sentimenduaren garapenean, kolektibitate bateko kidesan sentimenduan. Baina ez hori bakarrik, istorio hauek gure egungo gizartean eragin handia izaten jarraitzen dute. Oinarrizkoak dira hainbat ideia eta adierazpen hitz gutxitan adierazteko. Horren adibidea dugu, Paloma Rodriguez irakasleak berriki argitaraturiko poema hau:

Errauskiñeren zapata nahi zenuke aurkitu, neskaxa?

Ala femme fatale nahiago duzu izan?

Ez diozu lentejuelaz beteriko etorkizun horri oratuko.

Erakusleihenak luxuzko bertsetak eta ñir-ñir egiten duten harribitxiak

ez zaizkizu inoiz eskuragarri suertatuko.

Begia kliskatu dizun agureak ez zaitu zainduko.

Begia kliskatu dizun mutil gazteak ez dizu maitasun olerkirik idatziko.

Balizko maitaleen begietan ezkutatzen dira otsoak.

Errauskiñe ameslari tuntunaren zapata bakarra

eskainiko dizu edadeko maitagarri batek.

Jostailu apurtuen patuak itxaron bide dizu, ene lolita.

Ipuinon presentzia etengabea da gure gizartean. Iragarkietan, eguneroko albiste eta tertulietan, komentarioetan... eta baita ere hain ohikoak bilakatu diren mugikorraren bidezko mezuetan. Hona hemen azken egunotan jaso dudatan bat erasoaren kontrako haserrea erakusteko.

Es indudable, por lo tanto, el valor y la presencia de los cuentos populares y también la necesidad de realizar una lectura crítica de los mismos. En este sentido la recreación de nuevas historias a partir de los cuentos tradicionales, lo que Gerard Genette llamaba *travestimientos modernos*, además de acaparar el interés de los lectores, de jugar con sus expectativas y sorprenderlos, logra, normalmente a través del humor, ofrecernos otra visión del mundo más acorde con los valores que defendemos. Así, Carmen Martín Gaité, nos sorprendió con una visión moderna y actual de Caperucita situando la acción en Nueva York, Caperucita en Manhattan narra la historia de una niña de diez años que vive en Brooklyn y desea llevar una tarta de fresa a su abuela que viven sola en Manhattan. El bos-



que del cuento tradicional, el espacio de peligro y misterio, son las calles de Nueva York, y Caperucita, Sara Allen, deberá recorrer ese bosque de edificios para llegar hasta la casa de la abuela.

Mario Ramos haur literatura liburu askoren egile ezagunak, eskolako erasoen berri azaltzen digu istorio bitxi batean; bertan otsokume bat baztertua da klasean, ikaskideek ez dute berarekin egon nahi ezberdina delako eta otsokumea, gainera, heldu batzuek erasotua da etxerako bidean.

Normalean beti izaten dira txerriak ihesi ateratzen direnak otsoaren aurrean, baina kasu honetan justu kontrakoa gertatzen da.

Era berean, Ramosek, Txanogorritxuren istorioa azaltzen digu Neu naiz azkarrena ipuinean baina kontakizun erabat ezberdin batekin: Otsoak amonaren kamisoia jantzen du eta kanpora ateratzen denean oin arrastoak ezabatzerantz etxeko atea ixten zaio. Zer gertatzen zaio amonaren kamisoia jantzita duen otsoari basoan barrena? Egoera surrealistentek irribarrea sortarazten dute irakurlearengan, amaieran Txanogorritxu bera agertzen zaigularik hagin gabeko otsoari laguntzen.

Istorio zaharrei, hipotestuei, eginiko erreferentziak askotan ez dira zehatz-mehatz

adierazten, baina irakurleak ulertzeko modukoak dira.

Anthony Browneren Basoan barrena albumean mutiko bat ikusten dugu basoan, saskitxo bat eskuan daramala. Bertan hainbat lagunekin aurkituko da eta aurrera jarraituko du haien gomendio eta eskaerei kasurik egin gabe harik eta beroki gorri bat ikusi arte. "Jantzi bezain laster beldurra sentitzen hasi nintzen (...) Orduan amonak otso gaizto bati buruz kontatu ohi zidan istorio bat gogoratu nuen. Lasterka hasi nintzen". Egileak ez du aipatzen zer istorio zen amonak kontatzen ziona, baina denok ulertzen dugu hura irudia ikusi bezain laster.

Son muchas las obras que podríamos comentar, pero quisiera hacer referencia a una obra muy especial que se publicó hace menos de un año y que tiene como título A. Este libro de Lorena Martínez Oronoz no tiene texto. Es un libro de imágenes en el que nos muestra al lobo atacando a una niña y la reacción de esta.

A través de los cuentos populares y de las versiones que se hacen recreando dichas historias o creando nuevas a partir de los hipotextos conocidos, debemos buscar no solo fomentar la lectura de nuestros pequeños, sino educarlos literariamente, formar lectores cada vez más competentes que sean capaces de comprender e interpretar lo que leen.

También debemos colaborar en la creación de una sociedad más justa, sin desequilibrios, prejuicios, discriminaciones ni abusos.



Dice la profesora Obiols, de la Facultad de Educación de Barcelona, que "nuestras miserias humanas, que por desgracia son muchas, solo podemos combatirlas educando mejor". No voy a mencionar todas las miserias de nuestro alrededor, vivimos en una sociedad mucho más individualista, llena de contrasentidos, como que teniendo tantos medios e instrumentos para comunicarnos cada vez hay una mayor incomunicación entre las personas, parece como si la disminución de las distancias nos alejara en vez de acercarnos; vivimos en una sociedad en la que algunos actos son verdaderas gangrenas sociales, por ejemplo la violencia y agresión sexual.

El 10 de julio pasado, por ejemplo, en un periódico alavés aparecieron 4 noticias relacionadas con la violencia de género.

Desgraciadamente estas noticias, que últimamente aparecen todos los días, no son nuevas en nuestro entorno. Ya a comienzos del siglo pasado, Azkue recogió un cuento sobre los malos tratos y la actitud de algunos jueces en torno a ellos. El cuento dice así:

Lekukoak

Senar-emazte bikote bat ez zen ados egoten eta senarrak emaztea jotzen zuen eta auzokoak entzuten zituen kolpeak. Epailearen aurrean emazteak deitu zion senarrari auzokoa lekuko harturik. Hara heldu zenean lekukoari galdetu zion epaileak ikusi zuen jotzen. Lekukoak erran zion:

-Ez, baina bai kolpeak entzun.

Epaileak, orduan, erantzun zion itzul zedila, ez zela lekuko on.

Itzultzerakoan emakumeak puzker haaraaandi bat bota zuen.

Epaileak erran zion:

-Errazu, emakumea: horrelakorik ez duzu hemen egin behar.

-Zer, jauna?

-Puzker bat bota duzu.

-Ikusi al duzu?

-Ez, baina bai entzun.

-Zeu ere ez zara on lekuko izateko.

Como decía, un siglo después prácticamente todos los días oímos hablar de violaciones, malos tratos, asesinatos... frente a ello una de las principales intervenciones debe provenir de la comunidad educativa. Y cuando hablamos de comunidad educativa, de las personas e instituciones que tienen que ver con la educación no estamos hablando solo de la escuela, también la familia, los medios de comunicación, las diferentes instituciones deben contribuir a formar a las personas, a combatir esta lacra. Y también la literatura. La literatura, los cuentos populares y los cuentos creados a partir de ellos pueden contribuir a alcanzar una sociedad más justa e igualitaria, y a la superación de los males y las miserias actuales.



Baina hori ez dugu lortuko herri ipuinen bidez bakarrik; ipuin horiek balio dute gure iragana ezagutzeko, gure etorkizunaz gogoeta egiteko; baita egokiak izan daitezke elkarrengana hurbiltzeko, komunikazioa gerturatzeko, edo gizon-emakumeen arteko errespetua lantzeko ere. Herri ipuinak zaharrak dira, baina baita behar-beharrezkoak.


Mila esker





Nekane Balluerka,
Euskal Herriko Unibertsitateko
errektore andrearen hitzaldia

Discurso de Nekane Balluerka
rectora de la Universidad
del País Vasco







Lehendakari jauna, Eusko Legebiltzarreko presidente andrea, Arabako diputatu nagusi jauna, Vitoria-Gasteizko alkate jauna (bide batez, zorionak, Global Green City Award eskuratu duzuen honetan), lehendakari ohi jaunak, Hezkuntza sailburu andrea, Euskal Herriko beste unibertsitateetako errektore eta ordezkari jaunak, errektore ohi jaunak, herri agintariok, klaustrokideok, jaun-andreok.

Egun on guztioi eta mila esker gaur ekitaldi honetara etortzeagatik. Nire esker ona, bereziki, Etxaniz irakasleari eskaini digun mintzaldiagatik. Hitzaldi horretan hausnarketarako proposamen batzuk ere egin dizkigu: literaturak beste tresna bat izan ahal (eta behar) du jokaera bortitz eta bidegabeak, bereziki gizonen eta emakumeen artekoak, baztertzeko. Zeren eta, berak zioen moduan, eskola ez ezik, pertsona hezten laguntzen duten jarduera guztiak baitira hezkuntza, baita herri ipuinak ere.

Errektore talde honek 2017ko urtarriean hartu zuen bere gain Euskal Herriko Unibertsitatearen zuzendaritza. Horrek erantzukizun handi bat eman zigun taldea osatzen dugunoi: gure gizartean erakunde handienetako, konplexuenetako eta, kontuan izanik dituen eginkizunak eta helburuak, garrantzitsuenetako bat zu-

zentzea. Gainera, 2019ko apirilera Euskal Soziometroak adierazi zuen bezala, unibertsitatea da gaur gaurkoz euskal gizarteak hobekien baloratzen duen erakundea, eta horrek erantzukizun are handiagoa ematen digu: erreputazio bikain hori sendotzea gure eguneroko lanarekin eta gure ekintza eta jarrera konprometitu eta koherentearen bidez.

Agintaldiaren bigarren erdian gauden honetan, uste dut beharrezkoa dela, lehenik eta behin, lortu dugunaren ebaluazioa egitea, honaino nola iritsi garen azaltzea, eta ondoren gogoeta egitea gure ustez Euskal Herriko Unibertsitatearen datozen urteetako ibilbidea zedarritu beharko luketen balioei buruz.

Dagoeneko esan dut Euskal Herriko Unibertsitatea gure herriko erakunde handienetako bat dela, bai tamainan bai berez duen balioagatik. Eginkizun du, gainera, funtsezko beharrei erantzutea: bere lanak kontuan hartu behar du gizarte osoaren interesa eta aintzat hartu behar ditu ere bazterturiko kolektiboak. Erakunde demokratikoa eta irekia den aldetik, Euskal Herriko Unibertsitatearen gobernu moldeak izatera parte hartzaile nabarmena duten sistema eta prozeduretan oinarritzen da, eta horiek etengabeko elkarrizketa eta akordioa eskatzen dute. Horri esker, gure ustez, jadanik igaro den agintaldi honen lehen zatian, unibertsitateak aurrerapauso handiak eman ditu, jarraian labur azalduko ditudanak.

2018-2021 Plan Estrategikoa gure unibertsitatearen ordezkari zabal baten ekarpenen bidez landu genuen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen zutabe diren bost ardatz jorratu genituen: prestakuntza, ikerketa, gizartearekiko harremana, balioen transmisioa eta, gobernantza eta baliabideak. Horri nazioartekotzea erantsi behar diogu, plan osoaren zeharkako elementu gisa.



Gainera, Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen 2019-2022 Unibertsitate Planak indartu egiten ditu gure Plan Estrategikoak ezarri dituen lehentasunak, eta horrek, zailtzarrik gabe, lagundu egingo digu gure unibertsitateak dituen desafio handiei aurre egiten.

Plan Estrategikoaren lan ereduak, gure proiektuaren lehentasunak indartzeaz gainera, lorpen zehatzak ahalbidetu ditu dagoeneko. Ondoren horietako zenbait aipatuko ditut.

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berria premiazko behar bat zen, unibertsitateko kide guztien eta Osasun Zientzietako profesionalen aspaldiko eskaera. Eusko Jaurlaritzarekin dugun lankidetzari esker –eta beste behin aitortu nahi dugu publikoki–, eraikin berri bat izango dugu Basurtuko ospitale ondoan. Azpiegitura berriak 52 milioi €-ko inbertsioa suposatuko du, eta Medikuntza, Fisioterapia eta Erizaintzako graduak es-

kainiko ditu 2024-2025 ikasturtetik aurrera, baita 7 master ofizial ere.

Bestetik, unibertsitate ospitaleen euskal sarea osatu dugu, Galdakao-Usansoloko Ospitalea –UPV/EHUri atxikia orain– bertan sartuz. Horrek aukera emango digu, besteak beste, euskarazko irakaskuntza ratioak hobetzeko Medikuntzako graduaren azken mailetan.

Medikuntzako graduak ikasleak onartzeko sisteman, hizkuntzen arabera (euskara eta gaztelania) onarpena ezarri dugu. Horri esker, modu eraginkorragoan kudeatuko ditugu Medikuntzako plazak eta gero eta hobeto erantzungo diegu gizarte elebidun baten beharrei.

Irakaskuntzari dagokionez ere, aurrerapausoak eman ditugu. Besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitateari atxiki zaizkio, alde batetik, Goi-mailako Online Institutua (Goi.eus), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen

Prestakuntza Masterra modalitate erdipresentzian eta euskaraz emango duena, eta bestetik, Elias Querejeta Zine Eskola, bere ardurapean izango dituen Artxiboa, Komisariotza eta Sorkuntza zinematografikoa izeneko berezko graduondoak.

Gainera, bultzada eman nahi izan diegu ere gradu bikoitzei eta titulu berriei. Hori horrela, agintaldi honetan, 2 gradu bikoitz ematetik 7 ematera igaro gara, eta 2020-2021 ikasturtean, Euskal Herriko Unibertsitatea estatuko lehena izango da Adimen Artifizialeko gradua eskaintzen.

Prestakuntza dualeko eskaintzari dagokionez, Prozesu eta Produktuen Berrikuntzaren Ingeniaritzako Gradua, Elgoibarko IMH zentro atxikiak ematen duena, aitzindari izan zen estatuan. Agintaldi honetan, 6 gradu eta 4 master gehiago eskaini ditugu prestakuntza eredu horretan.

Beste era bateko urratsak ere nabarmendu nahi nituzke. Adibidez, irakasleen lana ebaluatzeko Docentiaz ereduaren ezarpenaren ziurtapena: azken bi ikasturteetan %53 igo da ebaluatutako irakasleen kopurua; horrenbestez, irakaslearen %47ra iritsi gara.

Aipatzekoak dira ere Lanbide Heziketako Sarearekin lortu dugun elkarlan estua edo ikasle guztientzat balioko duten zeharkako gaitasunen katalogo baten definizioa.

Beti esan ohi dut ez dagoela distantziarik unibertsitatearen eta gizartearen artean, unibertsitatea gizartean dagoelako jada. Horren erakusgarri da gure ikasleek urtero egiten dituzten praktiken kopurua, curriculum praktikak nahiz borondatezkoak. Joan den ikasturtean, 11.588 praktika egin ziren guztira, eta horrek esan nahi du %10eko igoera izan dugula agintaldi honetan. Ildo berean, aipatzekoa da 2019ko otsailean enplegu foro berriak antolatu ditugula – Gipuzkoa eta Bizkaiko Campusetan– urtero Gasteizko Udalarekin elkarlanean antolatzen dugun Enplegu Foroarekin batera. Foro horietan izan diren 117 enpresek 660 lan eskaintza egin dizkiete azken ikasturteko gure ikasleei eta tituludun berriei.

Nolanahi ere, gure unibertsitate proiektuaren apustu handienetako bat ikerketa da. Ikertzen ez duen unibertsitatea, edo ikerketa bere jardueraren erdigunean jartzen ez duena, ez da benetako unibertsitatea. Alde horretatik, neurriak hartu ditugu belaunaldi aldaketa egokia ber-



matzeko, ikerketaren kultura indartzeko ikerketa tradizio urria duten arloetan, eta ikertalde berriak sustatzeko. Emaitzak esanguratsuak dira. Iaz, esaterako, 3.300 argitalpen izan genituen; % 25eko gehikuntza izan dugu azken hiru urteetan. Gainera, argitalpenen % 60 baino gehiago lehen kuartilean daude inpaktu indizeari dagokionez, eta % 50 nazioarte mailako elkarlanaren ondorio dira.

Bestalde, ezin dugu aipatu gabe utzi Bikaintasun Ikerkuntzako Euskal Zentroekin (Basque Excellence Research Centers) dugun lankidetzak, bizia eta emankorra baita.

Langileen politikari dagokionez, ahalegin handia egiten ari gara Lan Eskaintza Publikoen bidez egonkortasuna emateko irakasleei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei. Zehazki, agintaldi honetan, irakasleak finkatzeko, 258 plaza atera ditugu deialdira, eta martxan ditugu AZPkoen 77 plazari dagozkien hautapen prozesuak.

Gure unibertsitate proiektuaren beste apustu handienetako bat nazioartekotzea da. Mugikortasunean, % 17 handitu da kanpora doazen kopurua, eta % 33, gurera datozenena. Bestetik, dagoeneko 817 gradu irakasgai eta 360 master irakasgai ematen ditugu hizkuntza ez-ofizialetan, ingelesez nagusiki; hau da, % 19ko eta % 27ko igoerak izan ditugu azken bi ikasturteetan. Gainera, 2tik 6ra igaro da Erasmus Mundus Europako bikaintasun zigilua duten masterrren kopurua (8 izango dira 2020/2021 ikasturtean), eta Euskal Herriko Unibertsitateak koordinatzen dituen biek Europako Batzordeak ematen duen Good Practices Flag aitortza lortu dute.

Aipatutakoez gain, graduako 25 nazioarteko titulu bikoitz eskaintzen ditugu jada, eta masterreko beste 25. Horrenbestez, % 41 eta

% 56 handitu ditugu titulu horien eskaintzak azken bi ikasturteetan. Gainera, % 27 igo da atzerriko ikasleen kopurua:

2.307 ikasle matrikulatu dira azken urtean gure unibertsitatean.

Hainbat arlotan eginiko ahaleginak posizio onean kokatu gaitu nazioarteko rankingetan. Euskal Herriko Unibertsitatea munduko 500 unibertsitate onenen artean dago Shanghaiko rankingaren arabera. Jiao Tong Unibertsitateak egiten du zerrenda hori, eta unibertsitate munduan nazioarteko ebaluazio irizpide errespetatu eta enblematikoenetako bat da. Estatuko 13 unibertsitate soilik daude Shanghaiko 500 unibertsitate onenen rankingean.

Ranking horren uztaileko datuen arabera, espezialitateen araberrako analisisian, Euskal Herriko Unibertsitatea diziplina jakin batzuetan nabarmentzen da bereziki. Zehazki, Ingeniaritza Kimikoan, 76garren eta 100garren postuen artean dago, eta lehena da estatuko unibertsitateen artean. Gainera, beste bi diziplinan ere nabarmentzen da: Nanozientzia eta Nanoteknologian –alde batetik– eta Kimikan –bestetik–. Horietan 101garren eta 150garren postuen artean gaude.

Euskal Herriko Unibertsitatearen konpromiso sendoa erakusten duen beste arlo bat euskararena eta euskal kulturarena da. Lehen egin dudak baieztapen baten antzekoa eginez –hau da, ikertzen ez duen unibertsitatea ez dela benetako unibertsitatea–, ausartuko nintzateke esatera gure unibertsitatea ez litzatekeela unibertsitate on bat izango baldin eta ez balu konpromiso argia izango euskararekin. Alde horretatik, Euskararen III. Plan Gidaria onartzeaz gainera, azken bi ikasturteetan aurrera egin dugu hobetzeko tarte genuen arloetan. Adibidez, Medikuntzan % 8 hazi dira nahitaezko irakasgaiak euskaraz eta %

15 adar horretako ikasle berrien kopurua. Gainera, ikasturte honetatik aurrera, graduaren % 100 euskaraz egin ahal izango da. Odontologian, % 58 euskaraz irakastetik % 82 irakastera igaro gara, eta graduondoari dagokionez, bikoiztu egin dugu euskaraz eginiko nazioarteko tesien kopurua.

Euskaraz eta euskal kulturaz gainera, gure ustez unibertsitate proiektu batek ezinbestekoak dituen printzipio eta balioetara zabaltzen dugu gure gizarte erantzukizuna. Izan ere, goi mailako hezkuntzak "balioa" ematen du (ikuspegi ekonomiko eta profesionaletik), baina baita "balioak" ere (ikuspegi moral eta etikotik).

Hori horrela, agintaldi honetan genero indarkeriaren aurkako borrokan egin ditugun urratsen artean, protokolo berri bat abiarazi dugu hainbat jazarpen eta indarkeria kasuri aurre egiteko, eta beste egitasmo batzuk gehitu dizkiogu horri: hala nola Indartu programa edo on-line prestakuntza genero politiketan. Euskal Herriko Unibertsitatea feminismo instituzionalaren erreferente bihurtu da, eta harrobi lana egiten du emakumeak goi mailako hezkuntzara eta, hortaz, maila goreneko jarduerazientifiko eta profesionalera irits daitezzen.

Gizarte arloan, Arrakasta programa bezalako egitasmoak jarri ditugu martxan. Arrakasta egitasmo zinez aitzindaria da, helburu duena baldintza egokiak sortzea haurrak eta nerabeak babesteko sistemetatik igaro diren gazteek aukera izan dezaten unibertsitatera heldu eta goi mailako ikasketak arrakastaz, hain zuzen, egiteko. Ildo beretik aipatuko nuke matrikula ordaintzetik salbustea asilo eskaera egin duten pertsonak, nazioarteko babesa dutenak edo apatridak. Guk dakigunez, gure unibertsitatea bakarra da horretan estatuko unibertsitateen artean.

Como he indicado al inicio, mi intención es estructurar esta intervención en dos apartados: uno dirigido a describir lo que hemos hecho en esta primera mitad del mandato y otro a proponer, a modo de reflexión, algunos de los debates decisivos en los que se encuentra inmersa la universidad como institución. El objetivo de esta segunda parte será exponer una propuesta académica coherente con los valores éticos y académicos que defendemos y proyectarla a la sociedad.

Pero antes permítanme recordar el quincuagésimo aniversario (celebrado el pasado curso académico) de la Universidad de Bilbao, de la





cual la Universidad del País Vasco es directa sucesora. Consideramos que la Universidad de Bilbao es uno de los hitos en la historia académica de nuestro país, ya que cristaliza la firme apuesta de la sociedad vasca por una universidad pública que garantizara el acceso de todas las personas, cualquiera que fuese su extracción económica, a la educación superior, el desarrollo de la labor investigadora, la oferta multidisciplinar de estudios y la incorporación del euskera a la academia. Y esos valores identifican hoy a nuestra universidad y nos corresponde defenderlos y desarrollarlos.

La universidad está sumida en un proceso de cambio vertiginoso. Somos conscientes de que el mundo está cambiando de forma acelerada, pero preferimos imaginar que la universidad puede adaptarse a esos cambios con la tranquilidad con que lo ha hecho en otros momentos de la historia.

Tengo incluso la sensación de que, desde un punto de vista personal, nos creemos relativamente a salvo de los cambios (económicos, políticos, sociales, culturales) que se están produciendo. Nuestro tiempo individual es limitado, de modo que, en alguna medida, pensamos que la parte sustancial del cambio corresponderá a quienes vengan por detrás.

Pero ser conscientes del carácter acelerado de los cambios es un primer paso para comprender que nuestra institución (y con ella nosotros y nosotras, a título personal) debemos responder con una agilidad y una profundidad radicales. Por decirlo de otro modo: en un entorno cambiante, no adaptarse, no anticiparse a los grandes retos sociales, no solo no es avanzar: es perder posiciones, es retroceder.

Identifico cuatro espacios de debate que nos imponen una elección, una apuesta, un compromiso. Son cuestiones que definirán nuestro proyecto de futuro en función de las respuestas que demos a cada una de ellas.

La primera es el debate entre lo económico y lo ético.

Vivimos una dialéctica constante entre la eficacia económica y la afirmación de valores morales, entre la productividad y la responsabilidad social. Vaya por delante que rechazo el presupuesto de que hablar de economía suponga de por sí ausencia de valores morales. Eso sería como aplicar a la química una presunción de toxicidad. Son prejuicios sociales, a veces muy extendidos, frente a los que la universidad debe luchar.

Pero es evidente que existe una tensión entre ética y productividad. Bien, en mi opinión, no puede haber productividad sin valores. O, en otras palabras, la mejor productividad económica incorpora valores éticos, porque sin ellos también quiebra, a medio plazo, cualquier proyecto que quiera ser productivo. He repetido en muchas ocasiones una distinción que ya ha calado en el debate público y que deslinda ese campo de discusión: la diferencia entre elitismo y excelencia. Una universidad competitiva debe apostar por la excelencia. Hablamos de una universidad dispuesta a ofrecer lo mejor de sí misma y a competir entre las mejores universidades; una universidad exigente con su alumnado, con su profesorado y con su personal de administración y servicios. Pero esa exigencia cobra verdadero sentido desde valores éticos muy claros: la igualdad de todas las personas, la garantía de que nunca serán los medios económicos los que excluyan a una persona del acceso a la formación universitaria, la eliminación de cualquier barrera para que personas con la necesaria capacidad intelectual desarrollen sus estudios sin limitaciones de accesibilidad. No hay verdadera contradicción entre lo productivo y lo ético, porque solo la ética garantiza la auténtica productividad.

El mejor ejemplo lo tenemos en el acceso de la mujer a los niveles más altos de la carrera investigadora. Privar a la investigación del 50% de la ciudadanía, impedir que mujeres con talento accedieran a la investigación era, en términos de mera rentabilidad, mantener una investigación muchísimo peor que la que pudiera haber sido. De nuevo, los valores no son un lastre para la productividad, sino su mejor aliado. Nuestro proyecto académico quiere mantener esa coherencia en todas las vertientes de la política universitaria y la vamos a impulsar aún más en el futuro.

En ese sentido, nos manifestamos en sintonía con los Objetivos de Desarrollo Sostenible, declarados por la Organización de Naciones

Unidas. Son parte fundamental de nuestro proyecto universitario. De hecho, somos la primera universidad del estado que ha diseñado un proyecto de desarrollo de la Agenda 2030, en el que se incluyen 12 de los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible, y un objetivo adicional ligado a la diversidad lingüística y cultural, lo que nos obliga a cumplir con 58 indicadores que evaluarán los avances en dicha agenda.

Partiendo de una propuesta de nuestro alumnado, la Universidad del País Vasco se ha adherido a la declaración del estado de emergencia climática. No se trata de una mera declaración sino de un reto en el que estamos trabajando con actuaciones concretas como el congreso de estudiantes que pronto celebraremos bajo el lema "Nuestro Trabajo Fin de Grado sirve para transformar el mundo" o el proyecto transfronterizo multidisciplinar Ocean i3 que plantea contribuir a la reducción de la contaminación en la costa vasca-aquitana. En el marco de estas actuaciones ya se ha desarrollado más de un centenar de Trabajos Fin de Grado y Fin de Máster centrados en los Objetivos de Desarrollo Sostenible.

Hay una segunda dialéctica que no suele estar muy presente en el discurso público pero que, a pesar de sus riesgos, me gustaría abordar: la diferencia entre las distintas ramas de conocimiento y, de forma más genérica, la diferencia entre ciencias y letras o, en otro lenguaje, que a mí me parece más acertado, la diferencia entre ciencias y humanidades.

Del mismo modo en que deberíamos diluir las fronteras, intelectual y funcionalmente poco interesantes, entre investigación básica e investigación aplicada, debemos contemplar las distintas ramas de conocimiento como un universo permeable e integrado: un conjunto de disciplinas que, a la vista de la complejidad de la sociedad moderna, exige de los universitarios y las universitarias una interiorización amplia y diversa. Debemos aprender una nueva forma de estar en la universidad y

asumir la existencia de conocimientos y habilidades que nos pueden ser útiles junto a aquellos propios de nuestra disciplina académica y profesional. Un universitario, una universitaria, no adquiere esa condición solo por el aprendizaje de los conocimientos de una disciplina académica, sino porque estos vienen acompañados de una constelación de saberes complejos, que conectan distintas áreas de conocimiento y configuran, al final, personas cultas, críticas, capaces de interpretar y transformar el mundo en que vivimos.

Reivindico una docencia abierta, atenta a las otras disciplinas, curiosa por la actualidad política y por los movimientos artísticos, deseosa de saber más sobre medio ambiente, sobre cultura clásica, filosofía de la ciencia o inteligencia artificial, en especial cuando ninguna de esas materias forma parte de nuestra propia disciplina académica.

Esa visión integrada del conocimiento prepara a las nuevas generaciones para un mundo complejo, cada vez más imprevisible e inesperado, un mundo donde la flexibilidad, la capacidad de adaptación, la inteligencia emocional y la pequeña sabiduría personal que proporcionan fracasos, derrotas y experien-

cias serán tan importantes como la cualificación académica.

Al hilo de esta dialéctica, he escrito recientemente que los avances tecnológicos están suponiendo una auténtica revolución en nuestra forma de comunicarnos, de percibir la realidad y de entender el mundo que nos rodea. Gracias a la tecnología, nuestra percepción de la realidad social es más amplia y sofisticada: gestionar adecuadamente un cambio tan profundo requiere asumir una visión integradora de las distintas ramas del conocimiento.

Al igual que en la primera dialéctica a la que he hecho alusión, en esta segunda también estamos acometiendo acciones concretas como la publicación, por primera vez, de una convocatoria de proyectos colaborativos para promover la cooperación entre grupos de investigación pertenecientes a distintas áreas de conocimiento, los 3 laboratorios transfronterizos de cooperación o los 3 **Joint Research Laboratories** que hemos implantado con el mismo objetivo.

Paso a una tercera relación dialéctica que quería desarrollar al hilo de nuestro proyecto universitario: lo público y lo privado, más en concreto referido a nuestra financiación.



Tengo la sensación de que, a veces, la demanda por parte de la universidad de más fondos públicos se interpreta como un camino sin alternativa, más aún cuando acompañamos esa reivindicación, o ese deseo, con la afirmación de la autonomía universitaria.

La autonomía universitaria se puede y se debe reivindicar tanto ante instancias públicas como ante entidades privadas. La universidad debe realizar su labor de docencia e investigación (y también su labor de gestión) sin someterse a una dirección política. Del mismo modo, la universidad ni puede ni debe estar al servicio de intereses económicos o grupos de presión empresariales. Por cierto, las rectoras y los rectores del Estado venimos solicitando una nueva ley orgánica de universidades, que nos dote de autonomía más profunda, una autonomía institucional que, además, debe venir acompañada de una legislación emanada del Estado más ágil y flexible. Porque, como conocen de primera mano distintas instancias universitarias, la legislación administrativa ahora vigente es de enorme rigidez y, por añadidura, cada vez que se realizan reformas legislativas en ese ámbito, la rigidez se intensifica. No dudo de que todas las personas (el equipo rectoral, en primer lugar) tenemos que mejorar nuestra actuación, pero debo re-

cordar el contexto normativo en el que nos movemos, porque la obligación de cumplir la normativa vigente no impide manifestar las importantes dificultades que ello supone en la gestión diaria, a la que se le exige agilidad y eficacia.

Pero la reivindicación y la defensa de esa autonomía no nos emplaza en una privilegiada torre de marfil ni nos exime de responsabilidad. Al contrario, redobla esa responsabilidad: ante las instituciones públicas, que gestionan los recursos de la ciudadanía, y ante el sector privado con el que colaboramos formando profesionales con cualificación y transfiriendo conocimiento.

Desde esta óptica, para el desarrollo de la universidad pública adquiere pleno sentido recabar también recursos del sector privado, a través de prestación de servicios o contratos de transferencia, sin que ello deba condicionar en modo alguno la independencia de la universidad. La colaboración de la universidad con las empresas y con el entorno asociativo es una consecuencia natural de su imbricación en una sociedad como la nuestra. Siempre hemos pensado que la financiación de la universidad no debía reducirse a los recursos públicos, y la colaboración con el sec-



tor privado no debe afectar al principio básico de autonomía, como no afecta al mismo principio la relación económico-financiera que mantenemos con las administraciones públicas, señaladamente con el Gobierno.

La Universidad del País Vasco, en suma, debe seguir captando fondos de financiación privada, manteniendo al mismo tiempo sus valores de servicio público. Y digo "debe seguir" porque a lo largo de este mandato ya hemos incrementado en un 29,3% el número de contratos con instituciones y empresas, alcanzando la cifra de 1.300, e incrementado en un 50% el ingreso por licencias de nuestras patentes. En concreto, y solo en el apartado de contratos y licencias, hemos pasado de 8,4 a 9,4 millones de euros de financiación.

Abordo un cuarto espacio dialéctico, que contrasta lo cercano y lo lejano, lo local y lo internacional, las raíces de ese árbol que figura en nuestro logotipo y sus ramas que se extienden por el mundo. En el contexto global, una universidad no puede circunscribir ni su trabajo ni su visión ni su misión a un ámbito espacial restringido.

La UPV/EHU mantiene acuerdos de investigación con cientos de universidades de todo el mundo; sus grupos colaboran con investigadores e investigadoras de infinidad de países; hemos obtenido 102 proyectos en Horizon 2020, liderando casi un 20% de ellos y con un ingreso total de 30 millones de € durante los cinco años del programa; hemos consolidado un Campus de Excelencia Internacional con la Universidad de Burdeos y trataremos de ampliarlo a un consorcio de universidades europeas de alto nivel; y contamos con la Red Latinoamericana de posgrado. En estos momentos, 1.178 docentes de la UPV/EHU disponen ya de acreditación en nivel C1 para impartir docencia en terceras lenguas, en muchos casos en más de una lengua.

Pero junto a esa actividad mantenemos el mismo compromiso con los principios que constituyen nuestra razón de ser como universidad: la difusión, la promoción y el desarrollo de la cultura vasca, señaladamente, del euskera. Hay una dialéctica fecunda en esa naturaleza mixta de la Universidad del País Vasco, que viene simbolizada por la leyenda que acompaña a nuestro logotipo: dar fruto y extenderlo por el mundo. Solo desde la propia identidad, un pueblo o una cultura puede entrar en relación con otros pueblos y culturas. Desde la negación de lo propio, o desde el olvido de lo propio, no puede haber intercambio porque uno ya ha desistido de entregar lo que tenía. Quien no tiene nada que entregar, solo puede recibir, y quien solo recibe se halla, en términos culturales, en situación de empobrecimiento y dependencia.

La Universidad del País Vasco se plantea el doble reto de ser leal a sus raíces y de extender sus ramas por el mundo; servir a las necesidades de la sociedad vasca y proyectar su trabajo a nivel internacional; desarrollar docencia e investigación en lenguas no oficiales, y seguir siendo fiel a su compromiso con la lengua vasca.

Por eso, y especialmente hoy, ante las máximas autoridades de nuestro país, quiero recordar dónde estaban nuestra lengua y nuestra cultura antes de la creación de la Universidad del País Vasco, cuáles eran las herramientas conceptuales con que contábamos entonces para enseñar o investigar en euskera Física de los Materiales, Oncología o Historia del Arte. Qué bibliografía existía, qué materiales docentes, qué terminología, incluso, en cualquier área de conocimiento. La aportación que la UPV/EHU ha realizado a nuestro país se mide a veces en términos socio-económicos y no en términos intelectuales. Sin embargo, esa última es, en mi opinión, la aportación más extraordinaria que esta institución ha hecho a nuestro país y a nuestra cultura.

El carácter de universidad pública de la UPV/EHU se revela también en ese compromiso con la cultura vasca, que hace poco más de medio siglo estaba en estado de postración y en la que hoy se publican investigaciones del máximo nivel en todas las áreas de conocimiento. Esa es una aportación, me atrevería a decir, histórica, una aportación con la que debemos continuar, dentro de una combinación de fidelidad a nuestro origen y de empeño por ampliar y consolidar nuestra presencia internacional.

He intentado con esos cuatro puntos de debate ordenar, o reordenar, el núcleo de nuestra identidad como universidad, una universidad vasca y pública, una universidad excelente e inclusiva, una universidad que diversifica sus recursos, una universidad que cuida con la misma dedicación todas las ramas de conocimiento, una universidad con vocación internacional pero enraizada en la cultura vasca. Todo eso es la UPV/EHU y nuestra obligación es se-

guir trabajando con el mismo empeño y a la luz de los mismos valores, en la seguridad de que eso es lo que nos demandan nuestra historia, nuestro presente y la promesa de un futuro mejor.

Estoy convencida de que, gracias al compromiso y la dedicación de todas las personas que conformamos la comunidad universitaria, al apoyo esencial de la ciudadanía vasca, que nos ha vuelto a confiar la formación de miles de jóvenes, y al respaldo de nuestro Gobierno, en el curso que inauguramos avanzaremos con paso firme por la senda de los valores que queremos impulsar mediante el desarrollo de esos cuatro ámbitos primordiales en los que hoy me he detenido.

Mila esker guztioi zuen arretagatik eta, ekitaldi akademikoetan esaten dudan moduan, mesedez, ez ahaztu:

Eman Ta Zabal Zazue








Iñigo Urkullu,
lehendakari jaunaren hitzaldia

Discurso del lehendakari,
Iñigo Urkullu







Eusko Legebiltzarburu andrea eta zurekin batera zaudeten herri agintari eta herri ordezkari guztiok, Jose Antonio Ardanza eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariok; errektore andrea, Hego Euskal Herriko unibertsitateetako errektore eta ordezkariok, jaun-andreok, egun on.

Eskerrik asko, errektore andrea eta idazkari nagusia, zuen aurkezpenengatik. Eskerrik asko, baita ere, Xabier Etxaniz doktorea, "Herri ipuinak gaurko gizartean" hitzaldia irakurri duzu, literaturaren beste ikuspegi bat eskainiz. Bizikidetzaren aldeko ekarpena nabaritu nuke. Hau da gure gizartean, eta mundu globalean ere, urratzen jarraitu behar dugun bidea.

Errektore andreak bere hitzaldian unibertsitatearen erronkak eta lana egiteko modua ere aurkeztu ditu.

Erronken artean "Prestakuntza Duala zabaltzea", "Ikerketa sustatzea" edo "Nazioartekotzean sakontzea" nabaritu ditu. Bat gatoz erronka horiekin. Bat gatoz

lana egiteko modu bat partekatzen dugulako, "2022 Unibertsitate Plana" gure lan esparrua da, euskal unibertsitatearen sistema osoaren esparrua alegia.

Unibertsitatea elkarrekin eraikitzen dugu. Erakunde publikoek, Unibertsitate komunitateak, Gizarte eta kultura eragileek, Enpresa munduak... Helburuarekin bat gatoz, hau da, unibertsitatea hazten jarraitzea gizartearen goi-mailako prestakuntzan eta ikerketan.

Denon artean geroz eta Hezkuntza sistema hobea sustatu behar dugu. Hezkuntza etorkizuneko herri erronka bat da eta, beraz, denoi dagokigu gure ekarpena "ematea eta zabaltzea."

La Educación es un reto de País. Todo País avanzado aspira a tener un sistema universitario sólido y excelente que contribuya al avance de nuestra sociedad y cultura.

El Gobierno Vasco participa de este reto y comparte con la comunidad universitaria la actitud de mejora continua y anticipación al cambio que ha citado la rectora. Nos corresponde incentivar y apoyar a la Universidad en el desarrollo de todo su potencial. Formación Dual, Investigación o Internacionalización son objetivos de nuestra sociedad, compartidos también por la Universidad.

En esta línea de trabajo, subrayo los avances en la colaboración entre el Gobierno Vasco y la Universidad a lo largo de este año:

Hemos trabajado juntos y acordado las bases del Plan del Sistema Universitario Vasco 2019-2022. Hemos acordado el horizonte de inversión. Vamos a invertir 1.411 millones de euros en este cuatrienio en la mejora de la Universidad. Compartimos un modelo de gestión riguroso y responsable que permite garantizar la estabilidad de la actividad ordinaria



y abordar nuevos proyectos como la Facultad de Medicina y Enfermería que se ha citado.

Erronkak, Estrategia eta Kudeaketa eredia partekatzen ditugu. Hezkuntza lehentasunetako bat da. Goi mailako prestakuntza eskaintzeko eremu propio bat onartu dugu. Kudeaketa zorrotzari esker egonkortasuna bermatu dugu. Datozen lau urte hauetan 1.411 milioi euro inbertituko ditugu unibertsitatearen lehiakortasuna sendotzeko, goi mailako zerbitzua hobetzen jarraitzeko. Urtero "bikaintasuna" hitza erabiltzen dugu, gaur ere bai. Bikaintasunak "baliabideak" eskatzen ditu. Baina horrekin batera "jarrera" bat ere eskatzen du, ebaluazioaren eta hobekuntzaren aldeko jarrera. Batuketa hori areagotu egin behar dugu unibertsitatean.

La excelencia es la suma de recursos y actitud.

Este año hemos destinado 16 millones de euros a la convocatoria de ayudas para actividades de grupos de investigación de ex-

celencia en el periodo 2019-2021. Esta es la mayor financiación otorgada a esta acción hasta el momento.

Hemos invertido cerca de 9 millones de euros para la formación y perfeccionamiento del personal investigador. Supone un incremento promedio de un 10% en el salario que percibirán durante este curso las 384 personas investigadoras que participan en esta convocatoria. Hemos financiado el desarrollo del campus de excelencia de la Universidad Pública Vasca y dotado al proyecto Euskampus con 600.000 euros. La sociedad vasca realiza un esfuerzo presupuestario en Educación y Universidad, consciente de que esta es una inversión con un retorno positivo, personal y colectivo.

Eusko Jaurlaritzak aipatutako helburuekin bat egiten du: etengabeko prestakuntza, transferentzia, berrikuntza, talentua erakartzeko apustua, ikerketaren kultura indartzea, atzerriko ikasleak erakartzea edo BERC sarea sustatzea. Kalitatezko zer-

bitzu baten aldeko helburuak dira, gizarte osoarentzako eredugarriak izan daitezkeenak. Kalitatearekin batera, gertutasuna. Unibertsitatearen ahalmen guztiak aktibatu behar ditugu. Enpresa munduarekin harremanak sendotzen jarraitu behar dugu. Azken finean, lehen mailako beste helburu bat ere partekatzen dugu, hau da, ekonomia garapenean aurrera egiteko eta gazteentzat kalitatezko enplegu aukerak sortzea.

Gobierno y Universidad tenemos una trayectoria de 15 años suscribiendo Contratos programa. Esta experiencia nos ofrece un modelo único de desarrollo estratégico y actuación para el periodo 2019-2022. Hemos expresado nuestro compromiso para que esta Universidad avance de forma significativa en docencia, investigación de excelencia, transferencia de conocimiento e internacionalización. Compartimos los objetivos transversales con el euskera, la igualdad o la empleabilidad. Hemos puesto los cimientos para avanzar en una política universitaria y científica vasca innovadora en el contexto europeo.

La Rectora ha enmarcado el futuro en el desarrollo de los propios valores éticos y académicos. Apoyamos un modelo de Universidad vasca propio, acorde a nuestro tiempo, enmarcado en Europa y anclado en Euskadi. Abierto, innovador, transparente en la gestión, conectado y en relación constante con la sociedad. Impulsamos una política universitaria y científica que responda a las demandas de la sociedad, capaz de anticipar el cambio y proyectar nuevas respuestas.

Termino con un mensaje personal.

Mi reconocimiento a la labor de todas las personas que forman parte de la comunidad universitaria: personal docente, investigador, de administración y de servicios. Esta es una institución valorada por la sociedad vasca, es un

bien común apreciado y querido. Es un valor y, también, un compromiso.

Nos queda camino por recorrer. Debemos seguir avanzando desde la colaboración. Sociedad, Administración, Universidad, Empresa, esfuerzo compartido, "auzolana".

Amaitzeko, unibertsitate komunitatearen konpromisoa azpimarratu nahi dut.

Ez dugu ahaztuko gure norabidea: « eman ta zabal zazu. »

Hasitzat ematen dut 2019 / 2020 ikasturtea Euskal Herriko Unibertsitatean. Declaro inaugurado el curso académico 2019 / 2020 en la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertitatea.

Eskerrik asko eta ikasturte oparoa izan dezazuela!







eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea